

Jaiotzak %10 gutxitu ziren 2013ko bigarren hiruhilekoan

Ezkontzabeko amen jaiotzak, %37

Euskal AEn jaiotako haur kopurua: 2013ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 4.820 haur jaio ziren, iazko aldi berean baino %10 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Jaiotzak hiru lurraldeetan gutxitu dira: Gipuzkoan %-11,3, Bizkaian %-9,4 eta Araban %-9. Araban 793 haur jaio ziren, 1.571 Gipuzkoan eta 2.440 Bizkaian.

2013ko apiril, maiatz eta ekainean ezkontzaz kanpo jaioak guztizkoaren %37,1 izan ziren (%34,5 2012ko hiruhileko berean). Bizkaia (%37,3) izan zen Euskal AEko kopuru orokorraren gainetik ibilitako lurralde bakarra. Gipuzkoan eta Araban, %36,9.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2013ko bigarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.494, lehenengo haurrak izan ziren; 1.885 (%39,2) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; hirugarren eta ondorengoak, %8,8.

Jaiotzen %18,8an amak 30 urte baino gutxiago zituen

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %39,4. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%34,5). Askoz ehuneko txikiagoak dauzkate 25-29 urte bitartekoak (%13,6), 25etik beherakoak (%5,2) eta 40tik gorakoak (%7,3).

Ama ezkontzaberen amatasun-adina ama izan direnen multzoarenaren azpitik dago; ama ezkontzaberen %10,1 25 urtetik beherakoak baitziren, eta 25-29 urteen artekoak %16,9.


Amen %17,5 atzerritarra da

2013ko udaberrian Euskal AEn ama izandakoen %17,5 atzerritarrak ziren. Araba oso goitik dago, %24,8; Bizkaian %16,4 eta Gipuzkoan %15,7.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2013ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2013ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2012ko 2. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.804	100,0	4.596	100,0	5.335	100,0
Araba / Álava	793	16,5	741	16,1	871	16,3
Bizkaia	2.440	50,8	2.343	51,0	2.692	50,5
Gipuzkoa	1.571	32,7	1.512	32,9	1.772	33,2
Amaren adinaren arabera	4.804	100,0	4.596	100,0	5.335	100,0
≤ 24 urte	250	5,2	240	5,2	301	5,6
25 - 29 urte	652	13,6	618	13,4	766	14,4
30 - 34 urte	1.892	39,4	1.814	39,5	2.115	39,6
35 - 39 urte	1.658	34,5	1.581	34,4	1.804	33,8
≥ 40 urte	352	7,3	343	7,5	349	6,5
Amaren egoera zibilaren arabera	4.804	100,0	4.596	100,0	5.335	100,0
Ezkondua	3.021	62,9	2.878	62,6	3.495	65,5
Ezkontgabea	1.783	37,1	1.718	37,4	1.840	34,5
Amaren naziotasuna	4.804	100,0	4.596	100,0	5.335	100,0
Espainiarra	3.961	82,5	3.782	82,3	4.485	84,1
Atzerritarra	843	17,5	814	17,7	850	15,9
Jaiotza-hurrenkera	4.804	100,0	4.596	100,0	5.335	100,0
Lehenengoa	2.494	51,9	2.417	52,6	2.855	53,5
Bigarrena	1.885	39,2	1.802	39,2	2.024	37,9
Hirugarrena edo gehiago	425	8,8	377	8,2	456	8,5

Iturria: Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroako datuak


Iturria: Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua